



UROLANEKIN SAREA

GIZARTE BAZTERKERIA EDO ARRISKUAN DAUDEN
PERTSONEN GIZARTERATZE ETA LANERATZEA
BARNE ARAUDIA



Urola Erdiko laneratze eta gizarteratzeko eragileen arteko lankidetzaren sarea da, **zaurgarritasun** egoeran edo arriskuan bezala identifikatuta dauden pertsonen, laneratze ibilbide eta zerbitzu eraginkorrak eskeintzeko, elkarlana eta koordinazioa sustatuz.

UROLANEKIN Inklusio Sarearen Atxikimendu Dokumentua partekatzen dute




UROLANEKIN SAREA UROLA ERDIKO INKLUSIO SOZIALEKO ERAGILEEN ESPAZIOA.

Inklusio sozialaren esparruan diharduten eskualdeko eragileak, enplegu eta prestakuntza eragileak eta udal teknikari eta ordezkariak

BATZORDEA. Erakundeak: Udalak, gizarte zerbitzuak teknikoak eta politikoak, Lanbide eta kasuetan baloratzeko adituak.

KOORDINATZAILEA



PROIEKTU TALDEAK



- **Proiektu taldeak:** Landu beharreko eduki zehatzen edo garatu beharreko proiektuen arabera, lantaldeak eratu ahal izango dira. Lantalde horiek helburu eta epe bati lotuta sortuko dira.

KOORDINATZAILEA



- **Koordinazioa eta dinamizazioa:** Sareak bere koordinazioaz eta dinamizazioaz arduratuko den erakunde bat izango du maila teknikoan, Iraurgi Berritzen eskualde-garapeneko agentzia izango dena. Garapen agentzia sarearen koordinazio eta dinamizazio teknikoaz arduratuko da.
- **Funtzioa:** Lan-plana koordinatzea eta dinamizatzea, proposamen teknikoak prestatu eta aurkeztu; sarea eta batzordea dinamizatu, sareko kideen eskaerei erantzutea, komunikazio lanak bideratu, (agenteen arteko komunikazio-lerroak eta euskarriak informatzea eta mantentzea) eta idazkaritza lanak egin(gai-zerrenda egitea, deialdiak, aktak, txostenak etab)

KIDE BERRI BAT ESKUALDEKO INKLUSIO SAREAN SARTZEKO PROZESUA

- 1-Web-aplikaziotik/atari publikotik deskargatu ahal izango da eskaera-gutuna.
- 2- Webgune/atari publikoan agertzen den helbide elektronikora bidali beharko du.

ESKUALDEKO INKLUSIO SAREKO KIDE IZATEARI UZTEKO PROZESUA

- 1-Sarea gidatzen duen erakundeak erakunderen bati baja emateko eskubidea izango du, betetzen ez baditu Atxikipen-agirian ezarritako jarduera-printzipioak.
- 2- Hala badagokio, kideen baja emateko eskabideak ere atxikipen-gutuna sinatuz formalizatuko dira (II. eranskina)